

## ERRENTERIAREN IZENA DELA ETA

1997-VI-09

Juan San Martin

Urte batzuk igaro dira eskakizunez “Orereta gure herriko izena da” irakurtzen nuenetik. Eskari horri ukorik egin gabe errenteriar bati baino gehiagori nioen: Jakina ba Orereta zuon herriko izena dela, baina ez ordea herriarena. Nire harridura gazteei “herriko” eta “herriaren” arteko bereizkuntza ulerkaitz zitzaiela ohartzean; baina, ez ordea zaharragoei, zeren hauek bazekiten deklinabidea behar bezala erabiltzen.

Horrek bultzatu ninduen “Errenteriaz zenbait ohar” artikulua hura idaztera (ikus *Egan*, 1985. urteko 3-4 zenb., 187-189. orr.).

Garai haretan, Koldo Mitxelena zena eta biok ginen *Egan* aldizkariaren zuzendari, eta artikulua harek eman zion aukera Euskaltzaindiko batzarrean “Eratorbidea eta deklinabidea” zeritzan txostena, 1986ko otsailaren 28an aurkezteko (ikus *Euskera*, XXXI, 1986, 535-541. orr.). Txosten hortan zehatz aitortu zigun: “Errenteria da gure herriaren izena”, *Euskera* agerkari horren 537. orrialdean irakur dezakegunez. Txosten hori ikus berrargitaratua Julio Urkixo Mintegiak Mitxelenaren lanetarik anitz bildu zituen *Sobre historia de la lengua vasca* (1988) deritzanaren II. liburukiko, 674-679. orrialdeetan.

Baina hori ez zen lehen aldia gure hizkuntzalari jakitun hura Errenteria izenez arduratzen zena.

Euskaltzaindiak 1979an argitaratu zuen *Euskal Herriko Udalen Izendegia* egikeran Onomastika batzordeko ginenon buru zen Koldo Mitxelena eta hor zectorren 77. orrialdean “Errenteria” izen jatortzat gomendaturik. Liburutxo horren hitzaurrea Koldo berak egina zen eta hara bertan, deklinabidez zenbait ohar egin ondorean, zer zioen: “Izen zahar, berri eta berriagoekin ere izan dugu auzi latza. *Errenteria* izan da betidanik, zenbait erregela berri gora-behera, Gipuzkoako hiriarenaz gainera, Bizkaiko bi auzoren izena”.

Geroago, Arabaren sorreraz Gasteizen antolatu ziren hitzaldietan aurkeztu zuen “Estratos en la toponimia alavesa” zeritzan lana. Ikus, *La formación de Alava. Congreso de Estudios Históricos* (1984), 279-288. orrialdeetan. Lan hau ere bildua dator *Sobre historia de la lengua vasca* (1988) deritzan sail hartan. Eta, bigarren liburukiko 605. orrialdean, hara hitzez hitz zer zioen: “La historia

a secas permite a veces, si no con frecuencia, dar fechas absolutas para algunos hechos: así en ciertas épocas, por ejemplo en nuestro país por los siglos XI-XV, no son raros los bautizos públicos de poblaciones. Por citar un caso que me toca de cerca, se conoce el año del siglo XIV en que se constituyó como ente público, dentro del valle de Oyarzun, Villanueva de Oiarso, en un paraje que ya se llamaba Orereta. Se sabe también que ese núcleo de población ya llevaba su nombre actual, Rentería / Erreñterria, no demasiados años más tarde, y no porque se lo diera alguien constituido en autoridad, sino porque lo recibió “del pueblo”, por decirlo así, ya que no podemos caracterizar con mayor precisión un *se* impersonal. Conocemos además, o adivinamos con probabilidad próxima a uno, la razón de la denominación, igual a la que, seguramente por el mismo motivo, llevan dos núcleos de población de Vizcaya. También nos consta, por seguir por el mismo camino, que *Contrasta*, hoy en Alava, es nombre que aparece más tarde que *Sabando*, por ejemplo, que ya se documenta en el siglo XI”.

“En realidad, con todo, y volvemos a *Villanueva de Oiarso* y a su denominación más reciente, no es mucho lo que nos queda en las manos si cribamos la información. Tenemos ese nombre complejo, de primer elemento importado (con fundamento *in re*, pero también en la moda) y cuyo segundo miembro se documenta en época romana, ya durante el Principado. Asistimos, después, a la aparición de un nuevo nombre, que ya se había convertido en nombre común, no sabemos desde cuándo, en la lengua vasca misma. *Erreñterria* era préstamo incorporado a la lengua que adoptó la voz, aceptado y reconocido como bien mostrenco, que no sabemos si en este caso va o no determinado: *Erreñterria*, sin otra precisión, es ambiguo en ese sentido, y en romance se da tanto *Rentería* como *La Rentería*”.

Inor ez omen da profeta bere herrian. Hori gertatzen ote da ba mundu osoan ospe handia hartzera heldu zen gure hizkuntzalari honekin ere ? Non eta bere herrian hain zuzen.

Ulertu ezinezkoak zaizkit hiri-izen honek sortu dituen iskanbilak. Bada-kigu hori baino lehenagotik Orereta toki-izen bazela hor zegoela eta oraindik ere badela. Baina beste gauza bat da hiri-izena. XIV. mendearen lehen partean hiri izendatu zenean “Concejo de Oiarso” zen. Gero, Oartzunekin nahasterik ez sortzeko edo gure foruen arabera Erreñterria (aduana bezala) hor zelako, herriagandik izen hau hartu zuen, ez kanpotik inork behaturik. Izen hau erro-mantze hizkuntzetatik eratorria dela ? Ez gaitu horrek harritu behar eta are gutiago izutu. Hitzak, hitz soil asko bezala, hizkuntzen arteko prestakuntzak dira. Gainera, *erreñterria* hitzak, gazteleraz ez du euskararen duen esan nahiaren zentzu bera.

Erreñterria hitza euskalduna den ala ez zalantzan jarri duenik ere bada. Azaleko itxuraz hori ematen bai du. Baina ikus dezagun R.M. Azkueren *Diccionario Vasco Español-Francés* (1905-1906) delakoak hortaz zer dioen: **Erren-**

**teria** (B, G), aduana. douane. (??) (*Zeinbat itzaiñak, ikatzak olara eroaten, errenterietatik mea ekarten ? ¿cuanto (no ganan) los boyeros, llevando carbón á la herrería, trayendo mineral de las aduanas ? combien (ne gagnent pas) les bourgeois, en apportant du charbon à la forge et du minerari des douanes ?* (Per. Ab. 129-4). Erreferentzia hau, J.A. Mogelen *Peru Abarka* liburutikakoa da, eta erabiltzeko arrazoirik aski izango zuen ola-zaharrak bizirik zeuden garaian eta Ondarruko Errenteria Markinatik hain hurbil zuenez.

Aduana gisa erabili zen foruen jabe ginelarik Bizkai-Gipuzkoetan, zeren Espainiako erresumaren aduanak Ebron bai zeuden. Horregatik, izen hori, bere sustraiz latinetikakoa bada ere, hemen, gure historiaren une haien lekuko, euskarara eratorria eta bertan mamitua da. Ez da batere harritzekoa Bizkaia eta Gipuzkoaren itsas-hegaletan, ibaiak itsasorantza irtetzen diren inguruetan, portu zirenetan esan genezake, izenok hain kokaturik egotea. Bilbo, Bermio, Axangiz, Ondarrua eta abar. Baina bereziki Gipuzkoan, hiri handi batek izen hori hartu duenezkero.

Badakít izen honek Gipuzkoan auziak sortu dituela, baita ere badakit karrismak zer diren taldekerietan aritzen direnen artean. “Plaza eta Enparantza ez dira gauza bera” idaztean agertu nuen bezala (ikus *Egan*, 1984, 1-2 zenb., 121. or.). Hala ere, arrazoizkoa deritzadanari ez diot ukorik egingo.

Gainera, batak bestea ez du ukatzen. Historiaz aritu izan den edonork daki, bazela toki bat Orereta, eta oso ongi zioen “Orereta gure herriko izena da” hormetan iragarri zuenak. Beste gauza bat da herriaren izena izatea. Herriko eta herriaren ez bai dira gauza bera. Hala ere, aitor dezadan saltsa horietan sartzeko gogorik eza. Bai hordea, hor zehar barreiatu diren liburu eta liburuxkei buruz zenbait argitasun ematea.

Aldez aurretik agertu beharrezkoa zait Euskaltzaindiak, iritzia eskatzen zaionean, gomendioa ematen duela, baina Udal bakoitzak eskubide osoa duela jaramon egin ala ez. Lege zuzenaren arabera, Udalari dagokio hautapena.

Ondorean, Errenteria hitzaren euskalduntasuna agertuz, historian zehar izan dituen zenbait ohar eskainiko ditut.

Xenpelarrek ez zuen kezkarik eta axolarik gabe barra-barra erabili zuen bere bertsuetan Errenteria. Ba ote zekien Orereta zer zenik, kale-izen bat edo ezik ? Iparragirreri egin zion desafio hartan behintzat honako hau zioen: “...Errenterian bizi naiz eta egin zaidazu bisita”. Luis Jauregi “Jautarkol” olerkariagatik beste horrenbeste esango nuke. Biok ez ote ziren ba errenteriar jatorrak?

*Renteria* Euskal Herrian sortutako deitura da. Besteak beste, aski ospetsua Errenteriaren historian, 1526. urtean itsasoetan buruzagi agertuz Ibiza uharte inguruan Barbarroja-ren armada autsi zuena, Martin de Renteria Uranzu errenteriarra. Egintza horregatik, 1529an Karlos V. enperatoreak etsaien galeoiak bere armarrian jartzeko baimena eman zion gizon hura.

Nonbait, Bizkaian lehenagotik ziren deitura horretakoak. García Carraffa anaiak *El Solar Vasco-Navarro* deritzan obran diotenez, Bermio, Bakio, Axangiz eta Ondarruan dira Renteria deituren jatorriak. Guk ezagutzen dugunik zaharrena ordea Bakioko Iñigo de la Renteria da, 1422. urtean hil zuten hura, Lope García de Salazarek *Las Bienandanzas e Fortunas*-en dakarrenez (Lib. XXII, fol. 85, c. 2.). Eta Gorgonio Renteria (1868-1940) Bizkaiko euskal idazle oso ezaguna da gure literaturaz zerbait dakienarentzat.

Gauza hauek behar bezala bideratzeko, alderdikierietan erortzea ez da modurik egokiena, talde batentzat arrazoi guziak alde batera doazen neurri berean, beste batentzat guztiz bestaldera; bakoitzaren burukideek markatzen dituzten kontsignen arabera, baina arrazoiatarak makurtu gabe, ez buru eta ez anka. Eta, leloenak ere badaki hori ez dela bidezkoa. Bidezko eta legezko dena, zera da, haserreak sortarazi gabe, Udalak berak demokratikoki erabakitzea, Euskaltzaindiaren gomendiozko *Errenteria* jarraitu ala ez.

Oreretaren alde erabili diren aburuak, maizenik, beren laneri Renteria edo Errenteria izenburuz edo tituluz erabili dutenak dira. Titulu hautaketa horrek bedorrek ez ote dio Errenteriarri arrazoia ematen? Zeren egile horiek ez bai zuten hiriaren identifikatzerako aukera hoberik.

Ez dut jo beharrik Ptolomeo-ren aipamenezko *Oeasonera*, ez eta Plinio-ren *Olarso*-ra, baina bai historia aldetik aztertze hain oinarrizkoa iruditzen zaidan K. Etxegarairen *Investigaciones Históricas referentes a Guipúzcoa* (1893) lanera, zeren hor bai dator 162tik 214ra bitarteko orrialdeetan “Renteria” deritzan kapitulu bikain bat. Hor jasotzen dira Juan Ig. de Gamón eta J. Vargas Ponce-ren artean gai horri buruz gurutzatu zituzten gutun ageriak. Oiarso edo Oiarson harana Bidasoa ibaitik Urumeara arteko eskualdea omen zen, baina antzinako lurralde hura mugatzen hasi zirenean haranak bere titulua galdu omen zuen Oiarsoko Kontzejuarena hartzeako: “Cuando comenzó a limitarse la extensión del Valle de Olearso, y perdido este título, se llamó Concejo de Oiarso”.

Gero, 1320an errege San Fernandok hiri-bildutzaren forua ematean “Concejo de Oiarso” horrentzat izan zen, Orereta edo Renteria zen lekuan: “fue en tiempos más antiguos el asiento del Concejo de Oiarso” hala dionez 164. orrialdean. Segidan beste honako hau gehituaz: “Explica cómo nuestro Pueblo, además de Orereta o Rentería, tuvo el nombre de Oiarso u Oiarson”. Hala ere, behin eta berriz aipatuko da antzinatik eta anitz urtez “Villa de Rentería y tierra de Oyarzun” bezala ezagutu zirela.

Gauza bat dago argi, Errenteria herriak aranzel eskubideak zituela bere lonjarekin eta hortik eman zitzaiola izena (“lonja y arancel de derechos de la villa” zelakoaren 1497. urteko aipamen bat liburu berean dator, 170. orrialdean). Izen hori, euskalduna ez ezik Euskal Herriak bere foruen zuzena indarrean zegoela hartua da. Hori da historiaren arrazoia, baina baita ere garai haie-

tatik bai herriaren artean eta bai herbestectan iraupenaren berezko indarraren jabe izatean.

Mailaz, nahastu ezinezkoak dira toki-izena eta herri-izena. Horregatik, nire aburuz, Errenteriaren ordeztu Oiarso edo Oiarson jarri nahi izatea ere zentzuzkoa zen, herri izen mailan inoiz izan ez duen Olereta toki-izena jartzea baino. Berriz diot, argi eta garbi dagoela, historian zehar, herri edo hiri izenez Oiarso eta Rentería / Errenteria izan direla.